

GOSE eta EMON taldeek bide berriak baliatu dituzte beren diskoen grabaketaren berri emateko: **musikazuzenean** web-orrialdearen bitartez, egunerokoa idatzi dute.

“Bat-bi, bat-bi... Entzuten al da?... Bai? Hemen gose, Torrelodonestik. 1065 egun pasa dira kantu berriei osatutako gure azken diska gorri hura erditu genuenetik (g o s e III – 2009). Baina ez pentsa hiru urte hauetan geldi egon garenik!”. Horrelaxe hasi zuten Ines Osinaga soinu joleak eta haren taldekideek, irailan, kontakizuna.

Aritz Alustizaren taldeak honoko lerroak idatzi zituen abenduaren 3-an. Diska berria noizko izango den ere aurreratu dute beren egunerokoa: “Zuzeneko kontua asetzera gertzen zaigu orain eta indar biziz gaude eszenatokira irtetzeko, inoiz baino gogotsuago! Diska otsaila hasieran kaleratuko da eta ondoren zuzenekoak etorriko dira. Egun batzuetako atsedenaren ondoren, berriz biltzen hasi gara gure kontzertuak lan-tzen hasteko. Beraz, hau hasi besterik ez da egin...”

Grabaketen egunerokoa irakurtzeko:
<http://jarraipenbereziak.musikazuzenean.com>

Asier Gozategi: “Emanaldien antolatzaileei asko zaildu zaie lana. Gu hasi ginenean, ostegun batean bati bururatsen zitzaion jaialdia antolatzea, jartzen zuen oholtza, deitzen zizun eta larunbatean hor ari zinen jotzen. Orain baimenak behar dira, segurtasun-neurriak daude, ezin da diru beltzez ordaindu...” ... “ondo dago (bizimodua ateratzeko orduan) musikari lotua erabat ez egotea. Hala izan balitz, egin beharreko ez diren gauza batzuk egingo genituen. Adibidez, egin behar ez dituzun diskoak egiteko beharra senti dezakezu”.

(Diario Vasco, 2012-11-12)

Kepa Junkera: “Krisiak kolpe handia eman du. Beti izan da zaila, baina luzerako estrategia bat behar luke izan; produktua baloratu, sorkerazaleei duten garrantzia eman... ukiezinak diren gauzak baloratu” ... “Gainera, orain, kontzertuetara ez dira joaten musika ikasten ari direnak ere! Ezer ez geneukan garaian, gogoratzen naiz zer ahalegin egiten genituen lagunak eta nik, Bordelera kontzertu bat ikustera joateko... edo zer ilara egiten genituen Gasteizko jazz jaialdian. Orain ilusio asko galdu da eta hori, nik uste gertatu dela, irakaskuntzak huts egin duelako”.

(Deia, 2012-10-12)

URTE BUKAERAKO AFARIA, ABENDUAREN 28AN

Urteroko ohiturari eutsiz, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak afaria antolatu du eguberri bueltarako. Hasierako ohitura berreskuratuta, Inuxente Egunerako antolatu da aurten ere afaria. Abenduaren 28an, ostiralarekin, izango da hitzordua, Aiako Andatza auzoko ARISTERRA-ZU jatetxean. Afaritara etorri nahi izatera, deitu 943 83 28 28 zenbakira edo idatzi trikitixa@trikitixa.net helbidera.

DATUAK EGUNERATZEKO DEIA

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak bazkide guztien datuak eguneratuta dituela baieztatzeko, ohar honen bidez doakizue horretarako deia. Bazkide egin zinenetik hona, etxer aldatu bazara, e-mail berria erabiltzen baduzu edota beste daturen bat oker izan dezakegula uste baduzu, emaiguzu horren berri. Ikastaro, afari, emanaldi edota bestelako hitzorduen berri sarri zabalzen du elkarteak e-mail bidez eta, urte amaieran, oparia ere bidaltzen diegu bazkide guztiei etxera. Hortaz, oparirik edota e-mailik ez baduzu jaso, daturen bat oker daukagun seinale! Zure datuak eguneratzeko, deitu 943 83 28 28 zenbakira edo idatzi trikitixa@trikitixa.net helbidera. Mila esker!



www.trikitixa.net · www.trikimailua.com

Maltzetaren biografia idatzi du Juan Luis Zabalak

Trikitixaren memoria gizarteratzeko bidean, “Soinuaren Liburutegia” bildumak badu ale berria. Juan Garate *Maltzetaren* biografia jasotzen duen “Soinu bete bihotz” liburua argitaratu berri du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak. Juan Luis Zabala kazetari eta idazleak hartu du biografia osatzeko lana. Liburuarekin batera, soinu jole azkoitiarraren musika biltzen duen diskoa ere badu lan berri honek. 23 pieza dira denera, gehienak, etxean eta erromeriatan grabatutakoak.

Azkoitian jaio zen Maltzeta 1924an. Urrategi bailarako Maltzeta-Etxetxo baserrian. Handik jaso zuen ezizena garaiko soinu jole gehienek bezala. Etxetik zetorkion musikarekiko zaletasuna. Aita eta osaba dultzaineroak zituen, baina soinua nahiago zuen Juanitok eta gogor ekin zion trikitixari.

Plazaz plazako ibilian, sona handia lortu zuen Maltzetak. Eskolak ere eman zituen. Azkoitian aurrea eta Hondarribian ondoren, lan handia egin zuen irakaskuntzan eta trikitixaren zabalkundean. Bronkioetako gaitza tarteko, 2006an hil zen.

“Trikitilari osoa, trikitiaren garairik osoenean” halaxe deskribatu izan du Juan Luis Zabalak, biografiaren egileak. Mamen alabak berriz, soinuari lotuta bizi izan zela: “Azken urteetan ere ez naiz oriotzen aitzak soinuari jotzen ez zuen egun batez, oso gaixo ez bazegoen behintzat. Eta jotzen ari ez bazen, hitzak sortzen ariko zen, edo kantari... Trikitia zen bere bizitza”.

Soinuaren Liburutegia abesrastera datorren liburua da Elkarteak aurten kaleratu duen azken proiektua. Eta azken nobedadea den aldetik, ezin zuen huts egin Durangoko Azokan. Bertan egin berria da, liburua-aren aurkezpen formal eta komertziala. Ez da ordea aurkezpen bakarra izan. Maltzeta zenak dozenaka urtetan jo izan zuen Zumarragako Agina auzoan, eta toki huraxe aukeratu zuten Elkarteak eta familiak, jendarean aurrenekoz, liburua erakusteko. Aurkezpen hunkigarria oso. Eta Maltzetak Agina bezala, Aginak Maltzeta ere oso estimatua zuela agerian geratu zen.

Honoko lotura honetan dituzue Goierriko Hitzak Aginako aurkezpenean jasotako irudiak:

<http://www.youtube.com/watch?v=ny1BBbptERE>



ITSASO ETA IRUNE ELIZAGOIEN: “Txapelketek adina ez digu inork erakutsi”

Hamar urte joan dira, 7 eta 9 urtetxorekin, Etxalarko plazan txapelketara atera zirenetik. Egungo aldean, musika tresnak trukatura aritu ziren aurreneko emanaldi hartan. Soinua Iru- nek jo zuen. Panderoa, Itsasok. Gaur egun ordea, alderantziz aritzen dira: egun, Itsaso eta Iru- ne dira. Tradizioak agintzen duen moduan, soinu jolearen izena aurretik. Pandero jolea- na, ondoren. Azken urteotan txapelketatan puntaren puntan ibiltzeaz gain, plazetarako saltoa ere emana dute; Dantzadi taldearekin zein trikiti-bikote gisa. Alzaporrak Etxalarko ahiz- pa gazteekin hitz egin du beren berri jakiteko.

“Etxean, aita eta osaba musika zaleak ditugu, baina ez dute instrumenturik jotzen. Osabaren alaba gazteena trikiritik jotzen hasi zenean, hura gustatuta hasi ginen gu ere. Iru- ne hasi zen ikasten. Aurrena, sei urterekin, panderoa eta, zazpi- rekin, trikiritik. Nik etxean ikusten nuen... eta bost urterekin hartu nituen aurreneko bi tresnak. Ni ere sei urte nituela hasi nintzen klasetara joaten”. Hala kontatzen du Itsasok noiz eta nola ekin zioten trikiritikaren bideari.

Lesakako Trikiritik Eskolan ikasten zuten eta, eskola hura bera zen, Etxalarren txapelketa antolatzen zuena. “Gure ir- akasleak antolatzen zuten eta herrian bertan zenez, animatu egin ginen. Handik puska batera hasi ginen Gipuzkoara eta Bizkaita ateratzen, txapelketetara”. Ez alferrik! 24na txapel irabazi dituzte. Azkena, hil hontan bertan jokatu den Zaldi- barkoa. “Koadrotan paratuta” oraingoz behintzat “etxean aise sartzen” direla diote.

Gorenean ibiltzeaz gainera, ikasbide paregabea izan dute txapelketa. “Txapelketek erakutsi diguten hainbat, ez digu inork erakutsi. Lagun aunitz egin dugu, eta denekin ongi era- matea ezinezkoa izan arren, saiatzen gara inorekin ez haser- retzen. Laguntasuna lehiaren gainetik dago”. Jabetuta daude, txapelketaren bidean azken urratsak dituztela. Zaldi- barren azken urtea egin dute elkarrekin eta, heldu den urtea- ri begira, jarraituz gero, “gutxitan parte hartuko” dutela jaki- tun dira.



Txapelketako presiorik gabe aritzen dira plazatan. Lantegi erabat ezberdina da, baina honetan ere gustura dabilzala diote. Duela lau urte abiatutako proiektua da Dantzadi. “Lesaka eta Berako mutiko bana hasi ziren berbera giroko taldea osatu nahian... eta trikiritikariak nahi zituzten. Guri aipa- tu ziguten eta jakina, gu prest geunden probatzeko. Orain, donostiarrak ditugu taldekideak”. Aurtengo udan 30en bat emanaldi egin dituzte, gehien-gehienak herrietako festetan. Gaurko gazte asko bezala, “Solanozale” aitortzen dute beren burua, baina gustatzen zaie “beste estilotan aritzen diren trikiritikariak ere eredu hartzea; Gozategi, Tapia...”.

Itsaso batxilergoa ikasten ari da. Iru- ne, Euskal Filologia, Gas- teizen. Baina ikasle izateaz gain, trikiritikariak irakasten ere aritzen dira. Esperantzaz begiratzen diote trikiritikarietarako Nafarro- an. “Gutxi izan da, baina ari da pixkanaka indartzen Nafarro- a iparraldean behintzat. Haurrak ikasten ari dira eskolatan eta, ea oraingo gazteak gehixeago animatzen diren!”.



Aristerrazuko Erromeria laguntzeko hitzarmena

Aristerrazuko iganderoko erromeriari bultzada emateko, Aiako Udalak eta Andatza- ko Erromeria Elkartek hitzarmena berritu dute. Aiako Udalak 2015era arte diru- laguntza emango du, erromeria bultzatu eta auzoko kultur eskaintza mantentzeko.

Urriari hasi eta ekainera arte izaten da Aristerrazuko erromeria sasoia. Aurreko lege- gintzaldian bezala, honetan ere, Aiako Udalak diruz lagunduko du Andatzako Erro- meria Elkartea. Hitzarmenaren arabera, honokoa izango da Aristerrazuko erromeria indartzera bideratuko den diru poltsa: aurten 2.600 euro jasoko ditu elkartek, 2013an 2.800, 2014an 3.200 eta 2015ean 3.400 euro.

Gogoan hartu, igandero (eta jai egun zenbaitetan) izaten dela hitzordua, arratsalde- ko 18:30etatik iluntzeko 21:30etara, Aiako Andatza auzoko Aristerrazuko plazan.



Arkaitz Miner & Juan Arriola: hariari tiraka

disco
BERRIAK

“Biolinarena izan da azken mendean gure herri musika- ren ondaretik galdu dugun hotsetako bat; biolina izan baita, dokumentu zaharretan ikus dezakegunez, XVI. men- detik XX. mende hasiera arte euskal herri musikan modu nabarmenean erabili izan diren soinu-tresnetako bat”. Juan Mari Beltrani lapurtutako hitzak dira, berak idatzi baitu Arkaitz Miner eta Juan Arrio- la biolin joleak grabatu duten diskoaren aurkezpena. Beltranek bertan dioen gisan, “galdutako hotsaren bila” abiatu dira Miner eta Arriola. Hala, Euskal Herrira soinu txikia iritsi aurreko garaia gogoan, arrabita eta panderoa elka- rrekin entzungo ditugu hainbat piezatan.

Denera 13 pieza bildu dituzte. Dantzarako tradizionalak dira gehienak baina, badira tartean, beraiek sortuak ere. Beltranen irudiko, “gure atzoko eta gaur- ko musika ondare zabala arakatu ondoren egindako aukeraketa bikaina bioli- naren soka hots ederrez eskaintzen digute”.



Bergara, ehunka trikitaleren bilgune

Bergaran ospatu zen joan den urriaren 27an Euskal Herriko Trikiritik Eguna. Giro hotz eta euritsua izanagatik ere, goiz hasi ziren trikiritikariak hatzak berotzen. Goizean ateri xamar eutsi zion eta kalejiran ibili ziren trikiri- tariak. Giroa trakestu zitekeen beldur, Udaletxeko arkupeetara aldatu zen eguerdiko erromeria. Handik abiatuta, frontoiko epelean 300dik gora trikiri- ti zale bildu ziren bazkaltzera eta bertan jarraitu zuen ospakizunak, arra- tsaldean, Bide Batez taldearen erromeriarekin.

Hona hemen, Goiena Komunikazio Taldeak egun hartaz osatutako bideoa ikusteko lotura: <http://vimeo.com/52450203>



Euskal Herriko Trikitalariekin batera, Asturias eta Okzitaniako soinu joleak aritu dira Getxon

Nazioarteko Trikiritik Jaialdia azaroaren 24an ospatu zen Getxon. Ohikoa den lege- z, Euskal Herriko zein atzerriko trikiritikari eta musikariak izan ziren ohol- tza gainean. Izan ere, munduan zehar trikiritikari jotzeko dauden estilo eta era ezberdinak erakutsi nahi ditu jaialdi honek. Hori erakustearan arduradunak, Euskal Herriko, Tapia eta Leturia, Agurtzane eta Ion Elustondo eta Ruben Isasi izan ziren. Bestetik, Okzitaniatik etorritako Mirabèl taldea eta Asturiasko Tejedor anaiak ere aritu ziren. 2012ko edizio honetan, panderoaz gain, gaita, perkusioa, alboka, bibolina eta txirularekin lagundu zuten trikiritikariak aipatutako musikariek.

Taula gaineko lanak bukatu ondoren, *trikisession* delakoa hasi zen Areetako Glass tabernan. Bertan jaialdian parte hartu zuten trikiritikariak ikusi genituen era informalago batean jotzen; artistak elkarrekin nahastuta eta batzuk besteen piezak ere joz. Zale- tuak ere trikiritikari eta panderoak harturik eurekin batera jotzera animatu ziren.

BITE (Bizkaiko Trikiritikari Elkartea)



HAMAIIKA IKUSTEKO!

Triki Air Txapelketa, Zarauzko Putzuzulo Gaztetxean

Zarautzen trikiritikari zale eta dantzariarentzat huts egin ezinezko hitzordua izaten da Euskal Jai Eguna. Irailaren 9an ospatzen da eta, aur- ten, ekimen deigarri eta originala antolatu zuten Putzuzulo Gaztetxean: Triki AIR txapelketa. *Air Guitar* delakoa oinarri hartuta sortu zuten Triki AIR lehiaketa. Rockaren eta Heavy Metalaren munduan, itxura egiteari deitzen diote *Air Guitar*. Gitarrarik gabe, berebi- ziko keinuak eginez, imintzioka aritzea da. Zarautzen ordea, musika tresnak aldatuta aritu ziren Putzuzulo Gaztetxean. Soinu txiki eta panderoarik gabe, trikiritikari bikotea zeinek hobeki imitatu.

Lehiaketako argazkiekin osatutako bideoa, honoko loturan: <http://vimeo.com/49201069>